

LE 1. BALIABIDEAK ERA ARDURATSUAN KONTSUMITU ETA, PREBENTZIOAN OINARRITUTA, HONDAKINEN OSOKO KUDEAKETA EGIN

P 1.1 Udalerrian energiaren erabilera eraginkorra sustatu eta energia berriztagarriak jartzea bultzatu

- A 1.1.1 Energia-eraginkortasuneko ziurtagiria lortzeko araudiak eskatzen dituen baldintzak aplikatzen direla kontrolatu.
- A 1.1.2 Energia aurreztea eta zentzuz erabiltzea sustatu, hainbat sektoretan egindako sentsibilizazio lanaren bidez.
- A 1.1.3 Energia-kontadore adimendunak erabiltzeko kanpaina bat egin.

P 1.2 Udal instalazioetan energiaren erabilera eraginkorra sustatu eta energia berriztagarriak jartzea bultzatu

- A 1.2.1 Sistema informatiko bat jarri udal bulegotako eta argiteria publikoko kontsumoak kontrolatzeko.
- A 1.2.2 Energi kontsumo handienak dituzten udal eraikinetan auditori energetikoak egin kontsumoa murriztu eta hobekuntzarako plan bat jartzeko helburuarekin.
- A 1.2.3 Energia Aurrezteko Plan bat ezarri argiteria publikoan
- A 1.2.4 Energia erabiltzeko jardunbide egokiak jarri, kontsumo handienak dituzten eraikin publikoetan.
- A 1.2.5 Egin berriak diren udal eraikinetan energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemak ezarri.

P 1.3 Udalerrian uraren osoko zikloraren kudeaketa eraginkorra egin

- A 1.3.1 Hornidura eta saneamendu sareak hobetzeko Ekintza eta Inbertsio Plana egin.
- A 1.3.2 Sarean egon daitezkeen ur-galerak kontrolatzeko sistema bat ezarri.
- A 1.3.3 Uraren tarifen aldaketak sartzeko aukera aztertu, aurreztea bultzatzeko.
- A 1.3.4 Etxean eta zerbitzuetan ur-kontsumoa murrizteko jardunbide egokiei buruzko kanpaina informatiboak egin.
- A 1.3.5 Udal bulego eta zerbitzuetan egiten den ur-kontsumoaren kontrol eta jarraipena egin.
- A 1.3.6 Araztegiko ura berrerabiltzeko egon daitezkeen aukerak aztertu.

P 1.4 Hondakinaren prebentzioa eta birziklapena sustatu

- A 1.4.1 Hondakinak jaso eta kudeatzeko sistema alternatiboak jartzea bideragarria den baloratu, eta, hala izanez gero, egin beharreko aldaketak egin.
- A 1.4.2 Hondakin organikoaren gaikako bilketaren jarraipena egin eta bultzatu.
- A 1.4.3 Industrialdeetan industriako hondakin asimilagarriak atez ate jasotzeko sarea osatu.
- A 1.4.4 Udalerriko alde zaharrear, dendetan eta tabernetan atez ate kartoia biltzeko sistema finkatu eta zabaldu.

P 1.5 Erosketa eta kontratazio publikoak egiteko estrategiak garatu, ingurumeneko irizpideak, etikoak eta sozialak kontuan hartuta

- A 1.5.1 Erosketa eta kontratazio publikoak egiteko politika berde, etiko eta soziala onartu.
- A 1.5.2 Udalerako erosketa eta kontratazio publiko berdea egiteko ekintza plana definitu eta ezarri.
- A 1.5.3 Udalerako erosketa eta kontratazio etiko eta soziala egiteko ekintza plana definitu eta ezarri.
- A 1.5.4 Udaleko langileei prestakuntza eta informazioa eman erosketa eta kontratazio publiko berde, etiko eta sozialari buruz.

LE 2. PERTSONEN OSASUNEAN ETA INGURUMENEAN INPAKTUAK JASATEKO ARRISKUAK MINIMIZATZEA

P 2.1 Berotegi-efektuko gasen isuria kontrolatu eta minimizatu eta udalerriko aire-kalitateari buruz informatu

A 2.1.1 Berotegi-efektuko gasen inbentarioa kalkulatu eta gas horiek murrizteko helburuak finkatu.

A 2.1.2 Berotegi-efektuko gas isuriaren inbentarioaren emaitzak herritarrei jakinarazi eta gai horren inguruan sentsibilizazio jarduketak egin.

A 2.1.3 Zarauzko aire kalitatearen mailari buruzko informazioa herritarrei helarazi.

P 2.2 Kutsadura akustikoa murriztu eta horrek pertsonen osasunean duen inpaktua minimizatzeko neurriak ezarri

A 2.2.1 Zarataren mapa estrategikoa egiteko aukera aztertu.

A 2.2.2 Zaraten ordenantza berrikusi eta bertan ezarritako zaraten muga-maila egokitu.

A 2.2.3 Herritarrei zuzendutako sentsibilizazio eta informazio ekintzak egin, kutsadura akustikoari buruz.

P 2.3 Zoruen kutsadura prebenitu eta neurri egokiak hartu lur kutsatuak berreskuratzeko

A 2.3.1 Udal lizentziak ematean lur kutsatuaren gaia sartu.

A 2.3.2 Akuifero kuaternarioaren egoerari buruzko diagnostiko bat egin, eta hura babesteko neurriak hartu.

P 2.4 Larrialdietako Udal Plana kudeatu eta egokitu, klima-aldaketak pertsonengan izan dezakeen inpaktuari aurre egiteko

A 2.4.1 Larrialdietako Udal Planean parte hartzen duten alde guztiei prestakuntza eta informazioa eman.

A 2.4.2 Beharrezko simulazioak egin, Larrialdietako Udal Planak ondo funtzionatzeko duela frogatzeko.

A 2.4.3 Klima-aldaketaren inpaktuen aurrean pertsonen osasunak izan dezakeen arriskua eta kalteberatasuna aztertu.

A 2.4.4 Neurriak hartu pertsonen osasunean klima-aldaketak izan dezakeen inpaktua minimizatzeko.

P 2.5 Jarduera sailkatuak kontrolatu eta horien kudeaketa iraunkorra bultzatu

A 2.5.1 Jardueren errolda bat osatu eta diagnostiko bat egin, irekitzeko lizentziaren izapidearen arabera jarduerak daukaten egoerari buruz.

A 2.5.2 Plan bat diseinatu eta jarri udalerriko jarduera guztiek irekitzeko lizentzia lor dezaten sustatzeko.

LE 3. HIRI ESPAZIOA IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEN ARABERA ERABIL DADIN PLANIFIKATU

P 3.1 Eraikuntza iraunkorreko irizpideak bultzatu, bai eraikin berrietan, bai birgaitzeko jarduketetan

A 3.1.1 Erosotasun eta eraginkortasun energetikoko irizpideak ezarri, etxebizitzak eraikitzeko eta hiri-sektoreak urbanizatu edo berritzeko antolamenduetan.

A 3.1.2 Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrean (ZHAPO) aurreikusitako Ingurumeneko Udal Ordenantza egin eta onartu.

A 3.1.3 Ekimen publikoko garapen berrietan jarduketa berritzaileak, iraunkorrak, sustatu.

P 3.2 Neurriak hartu udalerriko egoera hidraulikoa hobetzeko eta klima-aldaketak ekar ditzakeen inpaktuei aurrea hartzeko

A 3.2.1 Klima-aldaketak azpiegituretan eta hiri-altzarietan sor ditzakeen arriskuak aztertu, bai eta udalerriak horren aurrean izan dezakeen kalteberatasun-maila ere.

A 3.2.2 Neurriak hartu udalerriko egoera hidraulikoa hobetzeko eta klima-aldaketak hiri espazioan izan dezakeen inpaktuari aurre egiteko.

P 3.3 Espazioaren erabilera mistoak sustatu, hiri paisaia zainduz eta mugikortasun iraunkorra bultzatuz

A 3.3.1 Zaharkitutako hiri-sektoreak berreskuratu, lurzoru artifizialduak berrerabiliz eta hiri-gune mistoen sorrera bultzatuz (bizitegi-guneak, zerbitzuak).

A 3.3.2 Udalerriko puntu beltzen mapa bat egin, eta jarduketak martxan jarri segurtasun-gabezia murrizteko, batez ere emakumeena.

A 3.3.3 Hiri-ingurunea birgaitzeko aukerak aztertu, bai ekipamenduak gehituta, bai urbanizazio berrien bidez.

A 3.3.4 Jarduketak garatu bide-sarea hierarkizatuz, eta horrela lehentasun hadiagoa emateko garraio-modu iraunkorrei, hiri-espazioaren kalitatea hobetuz eta paseatzeko guneen sarea sortuz.

A 3.3.5 Hiri-diseinu unitarioko irizpideak ezarri udalerrri osorako.

A 3.3.6 Monumentu Multzoa eta eraikin esanguratsuak kontrolatzeko araudi espezifikoak benetan aplikatzen den begiratu eta eraikin horien erabilera sustatu.

A 3.3.7 Zarauzko emakumeek historiari egin dioten ekarpena agerian jarri, hiri elementuei izenak jartzean.

P 3.4 Saihesbidea egin ondoren sortuko diren espazioak berriz urbanizatu, bai eta, lurperatu ondoren, trenbideak orain okupatzen duen espazioa ere.

A 3.4.1 Hiri-zeharbidea birmoldatu eta, saihesbidea egin ondoren, hiri-bide lasaian bihurtu.

A 3.4.2 Trenbidea bitan banatzeko eta lurperatzeko lanen jarraipena egin, kontuan izanda geltokiak ondo kokatu eta integratu behar direla.

A 3.4.3 Hiri-gunea joan-etorria hobetu, tren bikoiztu eta lurperatu ondoren, egungo trazatuak sortzen duen inpaktu akustikoa eta paisaia-inpaktua murriztu.

P 3.5 Garraio-modu iraunkorren erabilera erraztu

A 3.5.1 Herriko eta herri arteko garraio publikoko eskaintza hobetzeko beharren azterketa egin.

A 3.5.2 Herriko eta herri arteko garraio publikoko eskaintzaren kalitatea, lehiakortasuna eta integrazioa hobetu.

A 3.5.3 Bidegorri-sarea diseinatzeko proiektuan sartutako jarduketak egin.

A 3.5.4 Udalerriko haurrak eskolara seguru eta bakarrik joan daitezkeen lagundu, "eskola bideen" proiektuaren bidez.

A 3.5.5 Sektore espezifikoetan Mugikortasun Planak gara daitezkeen bultzatu.

A 3.5.6 Bizikletak alokatzeko udal sistema bat jartzea bideragarria izan daitekeen aztertu.

A 3.5.7 Alde zaharreko oinezkoantzeko gunea handitu eta hobetu.

P 3.6 Udalerrri osoko oztopo fisikoak kendu

A 3.6.1 Udal ekipamenduetan dauden oztopo arkitektonikoak kentzeko jarduketak egin jarraitu.

A 3.6.2 Bide publikoan eta garraibideetan dauden oztopo arkitektonikoak kentzeko jarduketak egin jarraitu.

LE 4. UDALERRIKO BALIO NATURALAK ETA PAISAIA-BALIOAK BABESTU, BERRESKURATU ETA HORIEI BALIOA EMAN

P 4.1 Udalerriko balio naturalak eta paisaia-balioak babestu eta kudeatu

A 4.1.1 Lurraldearen Arloko Planek eta Lurraldearen Zatiko Planek orokorrean ingurune naturala antolatzeko eta, bereziki, LAPeko nekazaritzarako interesgarriak diren eremuak antolatzeko ematen dituzten aurreikuspenen garapena zaindu.

A 4.1.2 Landa-ingurunekeo jarduera tradizionalak eta bizilagunek baliabideen kontserbazioarekin duten harremana hobetu.

A 4.1.3 Jardunbide egokien eskuliburu bat eta komunikazio kanpaina bat egin tradiziozko jarduerak eta biztanleria landatarra hobeto uztartzeko baliabideen kontserbazioarekin, horien zentzuzko ustiapena planifikatuz.

P 4.2 Ibai-ingurunekeo balio ekologikoak berreskuratu

A 4.2.1 Iñurritza errekaen ubidea leheneratu eta bere ezaugarri naturalak berreskuratu.

A 4.2.2 Igerain errekaen berezko egoera berreskuratu.

P 4.3 Udalerriko aberastasun naturalari balioa eman eta herritarrek sentsibilizatu baliabideak ongi erabil ditzaten

A 4.3.1 “Gerriko berde-urdinaren proiektua” egin, hiri-gunea inguruko espazioekin hobeto lotzeko, ibilbide naturalen bidez eta hiri-gunearen mugei tratamendu berezia emanez.

A 4.3.2 Ingurune naturalaren balioak eta horien zaintza egokia egiteko jarraibideak dibulgatzeko kanpainak egin, “gerriko berde-urdinaren proiektuarekin” lotuta.

A 4.3.3 Bidexken, jolas-guneen eta hondartzaren gainean herritarrek egiten duten balorazioa ezagutu.

P 4.4 Klima-aldaketak ingurune naturalean eragin ditzakeen inpaktuetara egokitzeko neurriak sustatu

A 4.4.1 Klima-aldaketaren aurrean ingurune naturalak duen arriskua eta kalteberatasun-maila aztertu.

A 4.4.2 Neurriak hartu klima-aldaketak ingurune naturalean izan dezakeen eragina murrizteko.

LE 5. TOKIKO EKONOMIAREN GARAPENA ETA ENPLEGU SORRERA SUSTATU

P 5.1 Dibertsifikazio ekonomikoa eta enpresa-ekimen berriak babestu

A 5.1.1 Udallerriak berak eskain ditzakeen enplegu-hobi berriak eta laneko aukerak aztertu.

A 5.1.2 Udalerrian industria ekimen berrien sorrera bultzatu eta babestu.

P 5.2 Udalerriko hirugarren sektorea indartu eta biziberritu

A 5.2.1 Formula berriak aztertu udalerriko ekonomiaren eragile den jarduera turistikoa bultzatzeko.

A 5.2.2 Sektore turistikoa profesionalizatzea bultzatu, establezimendu turistikoetan kalitateko sistemak eta programak jarrita.

A 5.2.3 Merkataritzako eta ostalaritzako jarduera bultzatu udalditik kanpo.

A 5.2.4 Udalerriko merkataritza eta turismoko sektorearen eta Udalaren artean solasaldi foro edo tresna egonkor baten sorrera bultzatu, bertan herriko elkarteek eta udal arduradunek parte har dezaten.

A 5.2.4 Udallerria *slow city* mugimenduan sar dadin bultzatu.

P 5.3 Enplegu sorrera eta kolektibo guztien gizarteratzea sustatu

A 5.3.1 Gizarte-egoera ahulenetan daudenei informazio, orientazio eta laguntza espezializatuko zerbitzuak eskaini, lan munduan sar daitezten.

A 5.3.2 Zerbitzu komunitarioen sorrera eta garapena bultzatu, bizitza pertsonala eta lanekoa bateratzeko.

A 5.3.3 Udal zerbitzuen eta Mankomunitateko enplegu zerbitzuen artean lankidetzeta eta koordinaziorako alor egonkor bat jarri.

LE 6. TURISMO-EREDU IRAUNKORRA BULTZATU, UDALERRIKO BALIO KULTURAL ETA NATURELEKIN BAT ETORRIZ

P 6.1 Garraiobide iraunkorren erabilera bultzatu turismoa arazorik gabe iristeko eta herri barruan mugitzeko

A 6.1.1 Turismoarekin lotuta herri barruko eta herri arteko garraio publikoa hobetzeko beharrak aztertu.

A 6.1.2 Udaldian disuasio-aparkalekuak herriarekin lotzeko autobusak jartzeko proposamena garatu.

P 6.2 Udalerriko gune naturalak eta balio kulturalak indartu, baliabide turistiko modura erabiltzeko

A 6.2.1 Interneteko eskaintza turistikoan eta gida espezifikoetan balio natural eta kulturalai buruzko informazioa zabaldu.

A 6.2.2 Udalerriko gune naturalekin lotutako zerbitzu turistikoak zabaldu.

A 6.2.3 Oinez eta bizikletaz egiteko bideak seinaleztatzeko osoko sistema bat garatu.

P 6.3 Turismoarekin lotutako zerbitzuetan irisgarritasuna bultzatu

A 6.3.1 Turismo, merkataritza eta ostalaritzako zerbitzuetan irisgarritasuna bultzatu "Pertsona guztientzako eskaintza turistikoa" sortuta."

A 6.3.2 Turismoko establezimenduek Turismoko Irisgarritasun Programan parte har dezaten sustatu eta bultzatu, hori egiteko behar dituzten bitartekoak jarrita.

LE 7. JUSTIZIA SOZIALA ETA HERRITARREN ONGIZATEA BERMATU

P 7.1 Zerbitzu eta ekipamendu sozial berriak egokitu eta/edo sortu, herritarren behar eta/edo eskaera berrieekin bat etorritz

A 7.1.1 Hirugarren adinekoek eskainitako arreta hobetu, zentro berri bat eraikita eta etxez etxeko zaintza zerbitzua zabaldua.

A 7.1.2 0-2 urte arteko haurrentzat haur hezkuntzako zentro berri bat eraiki.

A 7.1.3 Osasun zentroan eskainitako zerbitzu/espezialitate sanitarioak zabal daitezzen sustatu.

A 7.1.4 Atzeretik datozen etorkinak hartzeko plan bat egin, udalerriko hainbat eragilerekin koordinatuta.

A 7.1.5 Familia bitartekaritzako eta aholkularitza juridikoko zerbitzu bat sortu (bananketa eta dibortzio gatazkatsuak, genero-indarkeria, emakumeen babesa...)

A 7.1.6 Etxeko tratu txarren eta sexu eraso biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko neurrien protokoloa martxan jarri, jarraipena egin, aldaketak sartu eta ebaluatu.

P 7.2 Emakumeen ahalduntzea eta berdintasun arloko sentsibilizazioa sustatu

A 7.2.1 Emakumeak ahalduntzeko eskola sortu eta dinamizatu.

A 7.2.2 Zarauzko Emakume Txokoa sortu eta dinamizatu.

A 7.2.3 Zarauzko emakumeek historiari egin dioten ekarpena aztertzeko beka bat sortu.

A 7.2.4 Hizkuntza eta irudia modu sexistan ez erabiltzeko ordenantza egin eta onartu.

A 7.2.5 Udaleko langileak (funtzionarioak eta politikoak) prestatu hizkuntza modu sexistan ez erabiltzeko eta berdintasun alorreko ezagutzak jasotzeko.

A 7.2.6 Sentsibilizazio jardunaldia egin maila komunitarioan, eta ikastaroak, hitzaldiak eta beste jarduerak batzuk egin emakumeen parte-hartzea bultzatzeko.

P 7.3 Herritarren osasuna babestu eta ohitura osasuntsuak sustatu

A 7.3.1 Sexologiako eta osasuneko aholkularitza zerbitzua sortu.

A 7.3.2 Zarautzen egiten den drogen erabilera eta kontsumoari buruzko diagnostiko bat egin, bai eta udalerriko nerabe eta gazteek dituzten aisialdi eta denbora libreko ohiturei buruz ere.

A 7.3.3 Herritarrei hezkuntza eta tresnak eskaini osasun-ohitura onak sortzeko eta droga kontsumo eta abusuaren aurka borrokatzeko.

A 7.3.4 Herriko nerabe eta gazteei droga-kontsumoarekin lotu gabeko aisialdirako eskaintza eta aukerak eman.

A 7.3.5 Herritar guztiei drogei buruzko informazio zehatz eta errealista eman.

A 7.3.6 Udaltzaingoarekin lankidetzako eremu bat finkatu, alkohol, tabako eta gainerako drogen salmenta, publizitatea eta kontsumoa arautu eta kontrolatzeko.

P 7.4 Etxebizitzaren errealitateari eta herritarren eskaerari erantzun dion politika bat bultzatu

A 7.4.1 Alokairuko etxebizitza-beharrei buruzko eztabaida sortu.

A 7.4.2 Udalerrian dauden etxebizitza beharrak eta horien ezaugarriak aztertu, "etxebizitza beharrei" buruzko azterketa bat eginda."

A 7.4.3 "Etxebizitza hutsei" buruz Udalak egindako azterketan identifikatutako etxebizitza hutsak merkaturatu eta aprobetxa daitezzen sustatu.

A 7.4.4 Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren gaian sustatutako laguntza neurriak bultzatu eta horiei buruzko informazio gehiago eskaini.

LE 8. KIROL ETA KULTURA JARDUERAK ETA EUSKARAREN ERABILERA SUSTATU ETA DINAMIZATU

P 8.1 Udalditik kanpoko eskaintza kulturala indartu eta herritarren inplikazio handiagoa bilatu

A 8.1.1 Udalditik kanpo ere programazio kulturala indartu, jarduera aukera zabal eta anitzarekin.

A 8.1.2 Udalerriko bizitza kulturean herritarrek parte-har dezaten eta inplika daitezen bultzatu.

A 8.1.3 Udalerriko haurrentzat eskaintza kultural espezifiko diseinatu.

P 8.2 Kultura-ekipamenduetako eduki eta ekitaldiak era koordinatuan kudeatu

A 8.2.1 Egungo Zarauzko zinema egokitu eta bertan kultura edo aisialdiko jarduerak egiteko aukera aztertu.

A 8.2.2 Ekipamenduen eta antolatutako ekitaldi kulturalen arteko koordinazioa hobetu, urte guztian zehar programazio bat bermatuta.

A 8.2.3 Udal argazki artxiboa handitu eta ezagutarazi.

A 8.2.4 Santa Maria la Real parrokiako aztarnategiak eskaintzen dituen aukerak aztertu, bai azpiegituretan, bai edukietan eta bai kudeatzeko moduetan.

P 8.3 Kirola sustatu, pertsonak integratzeko eta ingurumena errespetatzeko bitarteko gisa

A 8.3.1 Udal kirol eskaintza finkatu eta herritarren eskari berrietara egokitu.

A 8.3.2 Udalerriko surf-eskolak hondartzaren zaintzan inplikatu eta ingurumena babesteko mezuak zabal ditzaten lagundu.

A 8.3.3 Emakumeen parte-hartzea eta genero-berdintasuna bultzatu eta indartuko duen kirol eskaintza diseinatu.

P 8.4 Bai udalerrian, bai udal zerbitzuetan euskara gehiago erabil dadin bultzatu

A 8.4.1 Euskara Biziberritzeko Plana garatzen jarraitu.

A 8.4.2 Udal zerbitzuetan 2008-2012 Hizkuntz Normalizazioko Planak garatu eta martxan jarri.

A 8.4.3 Euskara Zerbitzuko giza baliabideak beharren arabera egokitu.

A 8.4.4 Lan munduan, merkataritzan, etab. euskararen erabilera sustatu, lehendik dauden planak finkatuta edo berriak martxan jarrita.

A 8.4.5 Lankidetzako sare bat sortu udaleko Euskara Zerbitzuaren eta euskararen erabilera sustatzeko jarduerekin lotutako kultura eta aisialdi elkarteekin.

LE 9. IRAUNKORTASUN GAJETAN KOMUNIKAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA INDARTU ETA UDAL KUDEAKETAN ZEHARKAKOTASUNA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA BULTZATU

P 9.1 Udal kudeaketan herritarren parte-hartzea sustatu

A 9.1.1 Partaidetzarako Zarauzko Gida Plana martxan jarri, herritarrek parte hartzeko oinarriak berregituratzeko.

A 9.1.2 Tokiko Agenda 21en barruan herritarrek parte hartzeko mekanismo egonkor bat ezarri.

A 9.1.3 Parte hartzeko formato edo espazio berriak bultzatu, politiken inpaktuan mugikortasun, dinamismo eta trazabilitate handiagoak lortzeko.

A 9.1.4 Udalerriko egungo elkarte-sarea indartu, eta elkarte berriak sor daitezen bultzatu.

A 9.1.5 Lotura gunee bat ezarri barne-koordinazioko mekanismoaren eta herritarren partaidetzako mekanismoaren artean, TA 21eko ekintza planaren urteko kudeaketa egiteko.

P 9.2 Tokiko iraunkortasunarekin lotutako gaietan barruko eta kanpoko komunikazioa indartu

A 9.2.1 Udalerriko Tokiko Agenda 21 hedatzeko komunikazio plana definitu.

A 9.2.2 Udalerriko politikariei Tokiko Agenda 21aren inguruko ezagutza maila hobea eman.

A 9.2.3 Barruko eta kanpoko sentsibilizazioko ekintzak finkatu, tokiko iraunkortasunaren inguruan.

P 9.3 Udal politiken barruko koordinazioa eta zeharkakotasuna hobetu

A 9.3.1 Udaleko arlo eta zerbitzu guztien artean jarduera koordinatua izateko protokoloak finkatu.

A 9.3.2 Udalaren baitan departamentuen arteko komunikazioa eta lana errazteko tresna berrien erabilera bultzatu.

A 9.3.3 Udaleko euskarri informatikoak egokitu, estatistika-datuak sexuen arabera bereizteko.

A 9.3.4 Barruko mekanismo bat edo Tokiko Iraunkortasuneko komite bat sortu.

P 9.4 Iraunkortasun, justizia eta ekitate sozialeko balioetan oinarritutako hezkuntza-eredua bultzatu

A 9.4.1 Hiri Hezitzaileen Estatuko Sarean aktiboki parte hartu.

A 9.4.2 Eskolako Agenda 21aren inguruan, urte bakoitzean landutako edukiak eskoletako curriculumean sartzea sustatu.

A 9.4.3 Udaleko arloen eta eskolen arteko lankidetzak hobetu eta zabaldu, eskariaren arabera eta ondo koordinatutako programa hitzartuen eskaintza diseinatzeko.